



Proposamen didaktikoa

Egileak

Concepción Alcaraz Sánchez
María Gismero Agudo
Carlos Romera Valladares
Rafael Ruiz García

Gainbegirale teknikoa

Elisa Vega Montero

Gainbegiratzea

Antonio Francisco Ortega Molina

ibaizabal



1. unitatea. Jainko bakar bat

► TREBETASUNAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Trebetasunak

Judaismoaren, kristautasunaren eta islamaren jatorria Abrahamengan dagoela ikastea.
<i>Erlijio monoteista</i> izateak zer esan nahi duen jakitea.
Landutako hiru erlijioen jatorria eta haien sortzailea ezagutzea.
Landutako hiru erlijioetako testu sakratuak ezagutzea.
Landutako hiru erlijioetako bakoitzeko tenplu mota ezagutzea.
Landutako hiru erlijioetako jai nagusiak ezagutzea.
Gainerako edukiekin lotutako Bibliako testu batekin lan egiteko gai izatea.
Denboraren lerroan landutako erlijioen sortzaileak kokatzen jakitea.
Erlijio aniztasuna eta horien jarraitzaileak baloratzea eta errespetatzea.

Ebaluazio irizpideak

a Ea <i>erlijio abrahamikoak</i> zer diren azaltzen badakien.
b Ea badakien esaten erlijio monoteistak Jainko bakarrean sinesten dutenak direla eta beste batzuek hainbat jainkotan sinesten dutela.
c Ea hiru erlijioen sortzaileen izenak badakizkien eta ea erlijio horiek nola sortu ziren modu errazean azaltzen badakien.
d Ea landutako erlijio bakoitzeko testu sakratu nagusiak izendatzen badakien.
e Ea badakien landutako hiru erlijioetako bakoitzeko tenpluek zer izen duten.
f Ea izendatzen duen landutako hiru erlijioetako bakoitzeko jai garrantzitsu baten izena eta bakoitzaren ezaugarri bat.
g Ea badakien Bibliako aipuak aurkitzen unitatearekin lotutako Bibliako testu bat irakurtzeko eta ea lotzen duen irakurritakoa unitatean ikasitakoarekin.
h Ea badakien erlijio horien sortzaileak denbora lerro batean kokatzen. Izenak bakarrik osatu beharko ditu.
i Ea aberastasun gisa hartzen dituen erlijioen eta horien jarraitzaileen aniztasuna.

► KONTZEPTUZKO EDUKIAK

- Erlijio monoteistak: judaismoa, kristautasuna eta islama.
- Abraham, hiru erlijioetan dagoen pertsonaia.
- Judaismoaren jatorria, liburu sakratuak, tenpluak eta jaiak.
- Kristautasunaren jatorria, liburu sakratuak, tenpluak eta jaiak.
- Islamaren jatorria, liburu sakratuak, tenpluak eta jaiak.
- Hiru erlijioetako testu sakratuetan azaltzen diren elementuak eta pertsonaiak.
- Hiru erlijioen sinboloak.
- Erlijio aniztasuna munduan.

➔ OINARRIZKO GAITASUNAK

Gaitasunak	Ebaluazio adierazleak	EI
Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna	Ea irakurtzen, idazten, interpretatzen eta egiten dituen idatzitako eta kontatutako testu baten gainean proposatutako jarduerak.	a b c d
	Ea entzuten dien irakasleari eta gelakideei. Ea bere ideia propioak ahoz eta idatziz adierazten dituen.	a b C
	Ea ikasten dituen unitate honetan dauden ingeleseko hitzak eta esaldiak.	
	Ea jabetzen den erlijioentzako sakratuak diren testuak badirela.	d
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna	Ea informazioa lortzen duen entzundako istorioetatik.	a
	Ea badakien testuan dagoen informazioa lantzen, irakurmen ariketen bidez.	a
	Ea jasotako informazioa erabiltzen duen ideiak Bibliako testuekin lotzeko.	g
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna	Ea ikasten duen hitz egiten, taldean adostasun batera iristeko.	i
	Ea errespetatzen dituen erlijioen eta horien jarraitzaileen aniztasuna.	i
	Ea ikasten duen gizarte askotarikoa eta kultura artekoa errespetatzen.	i
Giza eta arte kulturarako gaitasuna	Ea ezagutzen dituen ikasitako erlijio monoteisten adierazpen kulturalak.	e f
	Ea ezagutzen dituen kultura unibertsalarekin lotutako pertsonaiak: Abraham.	a
Ikasten ikasteko gaitasuna	Ea ateratzen dituen beste pertsona batzuek kontatutako istorioen ondorioak.	g
	Ea lortzen duen testu bateko informazioa, jarduerak egiteko.	a b
	Ea gertaerak denboran kokatzen dituen emandako arauekin.	a
	Ea egiten dituen unitateko edukiei buruzko kontzeptuen mapak eta eskemak.	a b c d e f
	Ea Bibliako testuak bilatzen dituen aipu batetik abiatuta.	g
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna	Ea adierazten dituen sentimenduak, ideiak eta jakintzak.	i

1. unitatea. Jainko bakar bat

➔ METODOLOGIA

Unitate honetan kontzeptu berriak aurkeztuko dizkiegu ikasleei: monoteismoa, erlijioak, testu sakratuak, jai erlijiosoak... Horregatik, unitatea ikerlan gisa har dezakegu. Ikasleek kontzeptu berriak ikasi ahala idatzi eta haien lexikoan sar ditzakete. Abraham da abiapuntua, eta haren bidez, hiru erlijioen arteko lotura ezarriko dugu.

Idea ona litzateke unitate hau proiektu lantzea, horrela, erlijio bakoitzari buruz ikertu beharreko gaiak taldetan banatzeko.

Jarraitu proposatutako iradokizun metodologikoei.

➔ ANIZTASUNAREN TRATAERA

▶ Finkatzeko

- Hitz egin inguruko beste erlijio batzuei buruz.
- Gogoratu Abrahamen historiari buruz ikasleek dakitena.
- Egin orrialde bikoitzaren eskema bat.
- Saiatu kontakizunaren ideia nagusia hiru esalditan laburtzen.
- Idatzi erlijio monoteisten hiru sortzaileen izenak eta azaldu horiei buruz zer dakiten.

▶ Zabaltzeko

- Egin zerrenda bat beste kultura eta erlijio batzuk ezagutzea eta errespetatzea ona dela esateko arrazoiekin.
- Bilatu etxean hiru erlijioei buruzko informazioa: sinboloak, ospakizunak, irudiak, testuak, jaiak... Sortu erlijio monoteisten txoko bat.
- Bilatu informazioa musulmanek Ramadan garaian jaten dituzten ohiko jakiei buruz.
- Bilatu kontakizunaren jatorrizko testua Biblian eta irakurri eskolan. Ezberdintasunei errepara diezaiekegu.
- Bilatu Abraham, Mahoma eta Jesusen bizitzen gutxi gorabeherako datak. Egin denbora lerro bat eta jarri pertsonaia bakoitza bere tokian.
- Irakurri Ismaelen istorioa eta azaldu zergatik den musulmanentzako garrantzitsua.
- Sortu zerbait identifikatuko duen sinbolo bat.

➔ DIZIPLINARTEKOTASUNA

Euskara ikasgaiarekin, irakurketa eta irakurmena lantzen baitira.

Matematikarekin, denboraren lerroa lantzen baita.

Ingurunearen Ezaguerarekin, naturaren zaintza, beste kultura batzuekiko harremana, aniztasunarekiko begirunea, nortasuna erriuetan adieraztea, ohiturak, eta abar lantzen baitira.

Arte Hezkuntza: Musikarekin, unitatean proposatutako abestia lantzen baita; eta Plastikarekin, testuetan adierazitako ideiak marrazki bidez adierazten baitira.

➔ BALIOAK ETA JARRERAK

Besteekiko errespetua: begirunea eta tolerantzia sustatzen dituen bizimodua landuko dugu.

Sormena eta irakurketarekiko zaletasuna: mundua ezagutzen laguntzen diguten kontakizunak eta narrazioak irakurrita eta entzunda.

Beste erlijio eta kultura batzuekiko tolerantzia: ohiturak, jaiak eta liburu sakratuak ezagututa.

➔ IKT-EN ERABILERA

Webguneak

- <http://recursos.cnice.mec.es/bibliainfantil/>
- <http://www.bibleforchildren.org/>
- <http://www.cucurru.com/religiones-del-mundo/index.html>

➔ FAMILIAKO EKINTZA

Lagundu landutako erlijioei buruzko informazio erabilgarria eta erabilerraza bilatzen. Egin bisita tenplu erlijiosoren batera.

➔ ELEANIZTASUNA (EDO INGELESEKO LEXIKOA)

Unitatean ingelesez azaltzen diren hitzak lantzea: *population* (populazioa), *blessing* (bedeinkapena), *Antiquity* (Antzina), *Muslims* (musulmanak), *symbol* (sinboloa), *Quickly, make some bread* (Azkar, egin ogi pixka bat). Horiei buruzko informazio gehiago izateko edo nola esaten diren jakiteko, sartu webgune honetan: <http://www.wordreference.com/es/>

Ikaslearen liburuko orrialde bakoitza nola landu. Egitura.

➡ **TREBETASUNAK**

➡ **IRADOKIZUN METODOLOGIKOAK**

➡ **ERANTZUNAK**

➡ **JARDUERAK**

▶ **Finkatzeko**

▶ **Zabaltzeko**

➡ **LANKIDETZAKO IKASKUNTZA**

➡ **OINARRIZKO GAITASUNEN GARAPENA**

2. unitatea. Jainko salbatzaile bat

► TREBETASUNAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Trebetasunak

Elkartasunezko jarrerak baloratzen ikastea.
Jainkoak pertsonekin eginiko itun nagusiak eta horien esanahia ezagutzea.
Jainkoa pertsonak zaindu eta laguntzen dituen Aita Ona dela ikastea.
Profetak garrantzitsuak zergatik diren eta profeta batzuen izenak jakitea.
Jesus Jainkoak gizakiekin eginiko behin betiko Ituna dela jakitea.
Bibliako eta bertako istorioetako pertsonaia berri batzuk ezagutzea.
Liburu profetikoaren ezaugarri batzuk ezagutzea.
Misiolariek eginiko lanak baloratzea.

Ebaluazio irizpideak

a Ea jabetzen den elkartasunezko jarrera izatearen garrantziaz.
b Ea izendatzen eta ezagutzen dituen Jainkoak pertsonekin egindako itun nagusiak.
c Ea badakien Jainkoa Aita on bat dela eta pertsoneri lagun egiten diela.
d Ea ezagutzen dituen profeta batzuk eta haien misioa.
e Ea ezagutzen duen Jesus behin betiko Ituna izatearen esanahia.
f Ea azaltzen badakien Bibliako pertsonaia berri batzuei buruzko edukiak.
g Ea izendatzen dituen liburu profetikoaren ezaugarri batzuk.
h Ea ezagutzen eta baloratzen duen misiolariak egiten duten lanaren garrantzia.

► KONTZEPTUZKO EDUKIAK

- Salbatzen duen Jainko bat.
- Salbamena kristautentzat.
- Jainkoaren itunak pertsonekin: Noe, Abraham, Moises.
- Jainkoak juduen herrian patriarken eta Moisesen bidez egindako ekintza salbatzailea.
- Salbamenaren Historiako profetak.
- Jesus da behin betiko Ituna.
- Liburu profetikoak Biblian.
- Misiolariak, gaurko profetak.

➔ OINARRIZKO GAITASUNAK

Gaitasunak

Ebaluazio adierazleak

EI

Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna	Ea gai bati buruz hitz egiteko eta iritziak eztabaidatzeko gai den.	a f h
	Ea irakurtzen eta ulertzen duen unitatearen edukiei dagokien lexikoa erabiliz idatzitako testu bat.	b c d e f g
	Ea pertsonaia bati buruzko istorioa kontatzen badakien.	b d f
	Ea ingelesez hitz berriak ikasten dituen. Ea ingelesezko esaldi bat irakurtzen duen.	
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna	Ea ezagutzen duen pertsonen zuzenean mesede egiten dien lanbiderik.	a h
	Ea ezagutzen dituen herrialdeen arteko ezberdintasunak.	a h
Matematikarako gaitasuna	Ea denboraren lerroan azaltzen diren gertaeren ordena ulertzen duen datei erreparatuta.	b d f
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna	Ea ikasten duen kazetaritzako albisteetatik abiatuta.	a h
	Ea laburtzen dituen unitatean landutako ideia nagusiak.	e f g
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna	Ea baloratzen dituen misiolarien lana eta dedikazioa.	a h
	Ea profetetan injustiziak salatzen dituzten pertsonak ikusten dituen.	d g h
	Ea baloratzen duen pertsonen elkarlanerako jarrera.	a h
Giza eta arte kulturarako gaitasuna	Ea marrazkien bidez albistea eta gertaerak adierazten badakien.	f h
	Ea ezagutzen dituen hainbat tradizioetako antzinako istorioak.	b d f
Ikasten ikasteko gaitasuna	Ea kontzeptuen mapak eta eskemak egiten dituen.	b d
	Ea testu batetik abiatuta ariketak egiten dituen.	b d f g
	Ea Biblian informazioa bilatzen duen.	f g
	Ea beste pertsona batzuen esperientzietatik jarrera onak izaten ikasten duen.	a h
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna	Ea etorkizun profesionalaz jabetzen hasten den.	a h
	Ea baloratzen dituen bizitzako alde onak.	a
	Ea elkartasunezko jarrerak eta ekintzak bere egiten dituen.	a h

2. unitatea. Jainko salbatzaile bat

➔ METODOLOGIA

Unitate honetan, Jainkoak pertsonekin eginiko Itunaren istorioa landuko dugu Jainkoaren eta hainbat pertsonaren arteko topaketetatik abiatuta. Jainkoarekin topo egin izanak sortutako jarrerak ere aztertuko ditugu. Ikasleei ulertzen laguntzeko, elkartasunez eta batzuetan altruismoz, haien bizitza besteen alde ematen dutela dakiten pertsonetatik abiatuko gara, laguntza behar duten beste pertsona batzuei laguntzeko. Horrela, ikasleengan ere elkartasunezko jarrerak sustatzen saiatuko gara. Jarraitu orrialde bakoitzean proposatutako iradokizun metodologikoei.

➔ ANIZTASUNAREN TRATAERA

▶ Finkatzeko

- Idatzi koadernoan Lauraren mezutik abiatuta sortutako goiburuak.
- Hitz egin pertsona batzuen lanari esker amaiera ona izan duten arrisku egoerei buruz.
- Bilatu hiztegian *misiolari* eta *salbamen* hitzen esanahiak.
- Identifikatu misiolariak eta borondatezko beste langileek garapen bidean dauden herrialdeetan egiten dituzten lanak.
- Idatzi Noeren istorioari buruz dakitena.
- Irakurri eta azaldu *Jesus da Jauna* kristau ikasbideko proposatutako aleak.
- Bilatu informazioa unitateko testuan aurkeztutako lanak egiten ari diren tokiari buruz.

▶ Zabaltzeko

- Bilatu informazioa ezagutzen dituzten misiolari batzuek egiten duten lanari buruz.
- Bilatu informazioa ostadarrari buruz eta marraztu.
- Gogoratu eta idatzi Aginduak.
- Bilatu Biblian itunak azaltzen diren liburuak (Hasiera, Irteera, Ebanjelioak).
- Aipatu profeta garrantzitsuren baten istorioa.
- Ahal izanez gero, gonbidatu misiolari edo langile boluntarioren bat gelara bizi izandako esperientzia azaltzera.

➔ DIZIPLINARTEKOTASUNA

Euskara ikasgaiarekin, irakurketa, irakurmena eta elkarrizketa sustatzen baitira.

Matematikarekin, denboraren lerroa lantzen baita.

Inguruaren Ezaguerarekin, ostadarra eta beste fenomeno natural batzuk lantzen baitira, baita pertsonen segurtasunarekin eta herrialde txiroen errealitatearekin lotutako lanbideak ere.

➔ BALIOAK ETA JARRERAK

Besteen alde dena ematearen balioa: mundua hobetzeko besteekin konpromisoa hartzea dakarren bizitzeko modua lantzea.

Sormena eta **irakurtzeko zaletasuna**: mundua ezagutzen laguntzen diguten kontakizunak eta narrazioak irakurrita eta entzunda.

➔ IKT-EN ERABILERA

Webguneak

<http://recursos.cnice.mec.es/bibliainfantil/>

<http://www.bibleforchildren.org/>

<http://www.sed-ongd.org/spip/>

<http://www.aulased.org/>

➔ FAMILIAKO EKINTZA

Hitz egin etxean behartsuenekiko konpromisoari buruz. GKE edo elkarteren bati laguntzen ote diogun, kuotaren bat ordaintzen ote dugun edo ez... Azaldu zergatik egiten dugun hori. Ez badugu egiten, aztertu familia gisa konpromisoa hartzen ditugun proposamenak.

➔ ELEANIZTASUNA (EDO INGELESEKO LEXIKOA)

Unitatean ingelesez azaltzen diren hitzak lantzea: *danger* (arriskua), *rainbow* (ostadarra), *holy* (sokratua), *tenderness* (samurtasuna), *prophets* (profetak), *God saves him* (Jainkoak salbatu egin zuen). Horiei buruzko informazio gehiago izateko edo nola esaten diren jakiteko, sartu webgune honetan: <http://www.wordreference.com/es/>

Ikaslearen liburuko orrialde bakoitza nola landu. Egitura.

➡ **TREBETASUNAK**

➡ **IRADOKIZUN METODOLOGIKOAK**

➡ **ERANTZUNAK**

➡ **JARDUERAK**

▶ **Finkatzeko**

▶ **Zabaltzeko**

➡ **LANKIDETZAKO IKASKUNTZA**

➡ **OINARRIZKO GAITASUNEN GARAPENA**

3. unitatea. Gizon eginiko Jainko bat

► TREBETASUNAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Trebetasunak

Ebaluazio irizpideak

Kristautzat Eguberriek eta Abendualdiak duten esanahia gogoratzea.	a Ea badakien kristautzat Eguberriek duten esanahia.
Eguberrietako tradizio batzuen jatorria ezagutzea.	b Ea ezagutzen duen Eguberrietako tradizio batzuen jatorria.
Ikastea Jainkoa, maitasunagatik, gizon egin zela gu salbatzeko.	c Ea ulertzen duen Jesusen jaiotzak Salbamenaren Historian duen zentzua.
Jesus benetako Jainko eta benetako gizon dela jakitea.	d Ea ezagutzen duen Jesusen Jainko eta gizon izaeraren errealitatea.
Bibliaren jatorrizko bertsoia zein hizkuntzatan idatzita dagoen jakitea eta horri buruz hausnartzea.	e Ea badakien Bibliaren jatorrizko bertsoia hainbat hizkuntzatan idatzita dagoela eta horren zergatia.
Jesusi ebanjelioetan emandako izen bereziak jakitea.	f Ea izendatzen dituen ebanjelioetan azaltzen diren Jesusen izenak.
Kristauok Eguberrietan egiten ditugun elkartasunezko ekintzak gogoratzea.	g Ea identifikatzen dituen kristauok Eguberrietan egiten ditugun elkartasunezko ekintzak.
Eguberrien inguruko tradizioak ezagutzea.	h Ea ezagutzen eta izendatzen dituen Eguberrietako tradizioak.

► KONTZEPTUZKO EDUKIAK

- Jesus Jainkoaren semearen jaiotza.
- Jainkoak pertsoneri eginiko salbamen promesa Jesu Kristorekin bete zen.
- Gizon eginiko Jainkoa.
- Benetako Jainko eta benetako gizon.
- Jainkoa jende behartsuen eta xumeen artean jaio zen.
- Abendualdiaren eta Eguberrien ospakizuna.
- Eguberrietako tradizioak: zuhaitza, jaiotza, Gabon kanta, opariak, gozokiak.
- Jesus, Mesias eta Emmanuel izenen esanahiak.
- Biblia idazteko erabilitako hizkuntzak.

➔ OINARRIZKO GAITASUNAK

Gaitasunak

Ebaluazio adierazleak

EI

Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna	Ea erlijio arloko hiztegia hedatu duen. Ea badakizkien beste hizkuntza batzuen izenak.	b e f
	Ea sentimenduak, ideiak eta jakintzak adierazten dituen.	
	Ea alderatzen dituen gertaera bera kontaktzen duten bi testu.	e f
	Ea ingelesez hitz berriak ikasten dituen. Ea ingelesezko esaldi bat irakurtzen duen.	
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna	Ea ulertzen dituen gizartean dauden egoera gogorrak eta egoera horiek ekiditeko laguntza emateko aukerak.	a g h
	Ea herrialdeak eta toki geografikoak mapan kokatzen ikasten duen.	b e
	Ea gogoratzen dituen Jesus jaio zen tokiari buruzko datuak.	c
Matematikarako gaitasuna	Ea ezagutzen dituen zenbaki erromatarrak.	b
	Ea ulertzen duen denboraren lerroko gertaeren ordena.	c e
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna	Ea ateratzen duen testu bateko informazioa, ariketak egiteko.	c d e f
	Ea baloratzen duen tradizioen garrantzia.	a b h
	Ea baloratzen duen kristauak behartsuekin duten konpromisoa.	g
Giza eta arte kulturarako gaitasuna	Ea abestiak komunikatzeko bide gisa erabiltzen dituen.	a g h
	Ea ezagutzen dituen beste herrialde batzuetako tradizio batzuk eta horien jatorria.	b
	Ea jabetzen den Eguberrietako ospakizunen zentzuaz.	a c
Ikasten ikasteko gaitasuna	Ea elkartasunaren kontzeptuan sakontzen duen.	g
	Ea ariketak behar bezala egiteko estrategiak bilatzen dituen.	c d e f
	Ea kontzeptuen mapak eta eskemak egiten dituen. Ea kontzeptuen mapa laburpenak egiteko metodo gisa erabiltzen duen.	c d e f
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna	Ea ongizatearen egoera pertsonala baloratzen ikasten duen.	g
	Ea sortzen zaizkion beste pertsoneri laguntzeko jarrerak.	g
	Ea jabetzen den tradizioetan parte hartzearen eta horiei jarraipena ematearen garrantziaz.	a g h

3. unitatea. Gizon eginiko Jainko bat

➡ METODOLOGIA

Unitate honetan, berriro landuko ditugu Eguberrietako ospakizunei eta kristautzat duten garrantziari buruzko eduki garrantzitsuak. Batetik, Jesusen jaiotzak Salbamenaren Historian Jainko eta gizon gisa duen zentzua gogoratuko dugu. Ospakizun honek kristautzat duen zentzua eta garrantzia sakonduko ditugu. Tradizioen garrantzia eta horietako batzuen jatorria ere ikusiko dugu. Eguberrietan indartzen den elkartasuna landuko dugu hainbat kanpainaren bidez. Jarraitu orrialde bakoitzean proposatutako iradokizun metodologikoei.

➡ ANIZTASUNAREN TRATAERA

▶ Finkatzeko

- Idatzi testu bat norberaren egoera baloratzeko, askotan beste batzuekin alderatuta pribilegiatua izaten baita.
- Idatzi kristauok garai honetan zer ospatzen dugun.
- Seinalatu abenduko egutegian Eguberrietako egun esanguratsuenak.
- Bilatu Eguberrietan ospatzen diren beste tradizio bitxi batzuei buruzko informazioa.
- Irakurri eta azaldu *Jesus da Jauna* kristau ikasbideko proposatutako aleak.
- Idatzi arbelean Jesus berezia dela pentsarazten diguten kontakizuneko gauzak.
- Aipatu testuan Jesus izendatzeko erabiltzen diren hiru moduak: Salbatzailea, Mesias eta Jauna.

▶ Zabaltzeko

- Bilatu *Eguberriak* hitza beste hizkuntza batzuetan eta egin kartelak gela apaintzeko.
- Irakurri Biblian Jesusen jaiotzaren kontakizuna.
- Bilatu Jesusen jaiotzari buruzko ilustrazioak (ipuinetan eta biblietan) eta erreparatu antzekotasunei eta ezberdintasunei. Egin ondoren bakoitzak bere ilustrazioa.
- Bildu informazioa gure parrokiaren kilo kanpainako elikagaiak jasotzen dituen pertsona kopuruari buruz.
- Egin antzezlan txiki bat Jesusen jaiotza antzezteko.

➡ DIZIPLINARTEKOTASUNA

Euskara ikasgaiarekin, irakurketa sustatzea eta irakurmena lantzen baitira. Biblia idazteko erabilitako hizkuntzak ere landuko ditugu.

Matematikarekin, denboraren lerroa lantzen baita.

Ingurunearen Ezaguerarekin: Eguberrietako tradizioak lantzen baitira.

Arte Hezkuntzarekin: Musikarekin, kantua ere landuko baitugu.

➡ BALIOAK ETA JARRERAK

Ospatzearen balioa: gertaera garrantzitsuak ospatzearen garrantzia landuko dugu.

Partekatzea, bote kanpainaren aurkezpenarekin.

Elkartasuna; izan ere, pertsona batzuek denbora besteak zoriontsu egiteari eskaintzen diote.

➡ IKT-EN ERABILERA

Webguneak

- <http://recursos.cnice.mec.es/bibliainfantil/>
- <http://www.bibleforchildren.org/>
- <http://www.cucurrucu.com/campaa-del-kilo/index.html>

➡ FAMILIAKO EKINTZA

Unitate honetan, Eguberriak zentzu osoarekin ospatzea da proposamena. Horretarako, jarri jaiotza familian, apaindu etxea, egin maite ditugunentzako zorion txartelak eta egin elkartasunezko keinu bat seme-alabekin. Jaiotzako haurtxoaren aurrean otoitz labur bat egin dezakegu Jainkoari familiagatik eta dugun eta garen guztiagatik eskerrak emateko.

➡ ELEANIZTASUNA (EDO INGELESEKO LEXIKOA)

Unitatean ingelesez azaltzen diren hitzak lantzea: *food* (elikagaiak), *Christmas carols* (Gabon kantak), *birth* (jaiotza), *special* (berezia), *celebration* (ospakizuna), *Don't be afraid* (Ez beldurtu). Horiei buruzko informazio gehiago izateko edo nola esaten diren jakiteko, sartu webgune honetan: <http://www.wordreference.com/es/>

Ikaslearen liburuko orrialde bakoitza nola landu. Egitura.

➡ **TREBETASUNAK**

➡ **IRADOKIZUN METODOLOGIKOAK**

➡ **ERANTZUNAK**

➡ **JARDUERAK**

▶ **Finkatzeko**

▶ **Zabaltzeko**

➡ **LANKIDETZAKO IKASKUNTZA**

➡ **OINARRIZKO GAITASUNEN GARAPENA**

4. unitatea. Jesusek Jainkoaren Erreinua zabaltzen du

► TREBETASUNAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Trebetasunak

Ebaluazio irizpideak

Mirariaren kontzeptua gertaera harrigarri gisa aurkeztea.	a Ea badakien <i>mirari</i> hitzaren esanahia.
Ebanjelioetan kontatutako mirari batzuk gogoratzea eta Bibliako testu batzuen metaforazko edukia lantzea.	b Ea identifikatzen dituen ebanjelioetan kontatutako mirari batzuk eta haien esanahia ezagutzen duen.
Jesusek iragarritako Jainkoaren Erreinua nolakoa den ikastea.	c Ea badakien Jesusek iragarritako Jainkoaren Erreinuaren esanahia.
Jesusek Erreinua hitzen eta keinuen bidez iragarri zuela jakitea.	d Ea badakien Jesusek Jainkoaren Erreinua nola iragarri zuen.
Parabolak eta Zoriontasunak ezagutzea.	e Ea parabolak eta Zoriontasunak bereizten badakien.
Partekatzearen eta Jesusen ikasgaien garrantzia baloratzea.	f Ea badakien Jesusen ikasgaien mezua.
Ebanjelio sinoptikoak ezagutzea.	g Ea identifikatzen dituen ebanjelio sinoptikoak eta horien esanahia.
Besteen alde dena ematearen aukera Jesusen jarraitzaile izateko eredu gisa lantzea.	h Ea ikasten duen Jesusen jarraitzaile izateko besteen alde dena emateak duen garrantzia.
Jesusek eginiko mirariak irudikatzen dituzten pintura lan batzuk ezagutzea.	i Ea identifikatzen dituen Jesusen mirariak irudikatzen dituzten pintura lanak.

► KONTZEPTUZKO EDUKIAK

- Jesusek Jainkoaren Erreinua nolakoa den erakusten digu.
- Jesusek keinuen eta hitzen bidez erakusten du Erreinua.
- Parabolak, Zoriontasunak eta Gure Aita.
- Jesusen mirariak.
- Jesusen bizitzaren esanahia, besteei dena emateari eta pertsona guztiekin konpromisoa hartzeari dagokionez.
- Ebanjelio sinoptikoak.

➔ OINARRIZKO GAITASUNAK

Gaitasunak	Ebaluazio adierazleak	EI
Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna	Ea badakien gertatutako zerbaiti buruzko iritzia ematen.	a b c
	Ea badakizkien hitz berri batzuk eta horien esanahia.	a b e f g
	Ea alderatzen dituen eduki komuna duten Bibliako testu ezberdinak.	e g
	Ea ingelesez hitz berriak ikasten dituen. Ea ingelesezko esaldi bat irakurtzen duen.	
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna	Ea ulertzen duen munduan gero eta laburragoak direla distantziak komunikatzeko garaian.	a
	Ea ezagutzen duen fenomeno natural batzuen jatorria.	a b
	Ea denboraren lerroan gertaeren antolaketari begiratzen dion.	b c f
	Ea ezagutzen dituen Bibliako gaiei buruzko hainbat garaitako koadroak.	i
Matematikarako gaitasuna	Ea ezagutzen eta elkarrekin lotzen dituen data historiko batzuk.	b c f
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna	Ea ariketak egiteko Internetetik informazioa eskuratzen duen.	a h
	Ea hizkuntza elementuetatik informazioa ateratzen duen; esaterako, metaforetatik.	b c e f
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna	Ea baloratzen duen gizarteak informazioa jasotzeko duen beharra.	a
	Ea behar egoerak ezagutzen dituen eta egoera horiek hobetzeko laguntzen duen.	h
	Ea baloratzen duen mundua Jainkoaren Erreinua dela dion kristauen mezua.	c d
	Ea baloratzen duen partekatzearen garrantzia.	f h
Giza eta arte kulturarako gaitasuna	Ea ezagutzen dituen Jesusen mezuaren funtsezko hitzak.	c d e f
	Ea ezagutzen dituen gertaera bera islatzen duten koadroak.	i
Ikasten ikasteko gaitasuna	Ea positibotzat hartzen duen egindako ekintzetan inplikatzeari.	a h
	Ea erabiltzen duen kontzeptuen mapa laburpenak egiteko metodo gisa.	b c d f
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna	Ea ulertzen duen inplikaturik gero besteei lagun diezaiekegula.	c h
	Ea eskuzabaltasuna eta elkartasuna sustatu beharreko balio gisa hartzen dituen.	f h

4. unitatea. Jesusek Jainkoaren Erreinua zabaltzen du

➔ METODOLOGIA

Jesusen mezuari buruzko unitate hau lantzeko, mirariaren kontzeptutik abiatuko gara. Gaur egungo albisteetan a priori mirariak diruditen gertaerak azaltzen direla, baina ondoren azalpen logikoak eta fisikoak aurki daitezkeela ikusiko dugu. Kontzeptu horretatik abiatuta, Jesusek bere garaiko pertsonen Jainkoaren Erreinuari buruzko mezua iragartzeko erabilitako baliabideak ezagutuko ditugu eta aurreko urteetan landutako Jesusen ikasgaien funtsezko edukia ere gogoratuko dugu. Lan horri esker, ebanjelioen alderdi formalak gehiago sakonduko ditugu. Jarraitu orrialde bakoitzean proposatutako iradokizun metodologikoei.

➔ ANIZTASUNAREN TRATAERA

► Finkatzeko

- Eraman gelara gertaera harrigarri buruzko albisteak.
- Irakurri Jn 6,16-21 Bibliako testua eta gogoratu eta aipatu Jesusek zer irakatsi nahi digun horien bidez.
- Irakurri eta azaldu *Jesus da Jauna* kristau ikasbideko proposatutako aleak.
- Idatzi hiru ebanjelio sinoptikoen izena eta azaldu zergatik diren ebanjelio sinoptikoak.
- Hedatu aurkeztutako pintura lanei eta horien egileei buruzko informazioa.
- Bilatu Zoriontasunak azaltzen diren Bibliako testua proposatutako ariketak egiteko.

► Zabaltzeko

- Idatzi *mirari* hitzaren definizio pertsonal bat.
- Egin azken urteotako hondamendi naturalen zerrenda bat. Hitz egin horietan egondako itxaropen egoerei buruz.
- Bilatu metaforak dituzten Bibliako beste testu batzuk eta, besteak beste, saiatu zer kontatu nahi duten jakiten.
- Bilatu Biblian Zoriontasunak eta irakurri eta azaldu ikasleei.
- Bilatu Jesusen mirariak artegintzan eta hitz egin horiei buruz.
- Bilatu munduaren eta justiziaren alde lan egiten duten elkarten eta GKEen webguneak.

➔ DIZIPLINARTEKOTASUNA

Euskara ikasgaiarekin, irakurketa sustatzea eta irakurmena lantzen baitira. Horrez gain, hitz berriak ere ikasiko ditugu.

Matematikarekin, denboraren lerroa lantzen baita.

Ingurunearen Ezaguerarekin: erlijioak artean dituen adierazpenak lantzen baitira.

Arte Hezkuntzarekin: Musikarekin, kantua ere landuko baitugu.

➔ BALIOAK ETA JARRERAK

Partekatzea: balio hori unitate osoan landuko dugu eta, bereziki, ogiei eta arrainei buruzko kontakizunean.

Sorpresa eta **miresmena** Jesusen mirarien aurrean.

Errukia beste pertsona batzuen egoeren aurrean hunkitzeko eta laguntzeko konpromisorako gaitasun gisa.

➔ IKT-EN ERABILERA

Webguneak

- <http://recursos.cnice.mec.es/bibliainfantil/>
- <http://www.bibleforchildren.org/>
- <http://www.mochilapastoral.es/>

➔ FAMILIAKO EKINTZA

Joan inguruko museo edo tenplu batera Jesusen bizitzako uneak islatzen dituzten artelanak ikustera. Irakurri Ebanjelioko kontakizuna bisita egin aurretik.

➔ ELEANIZTASUNA (EDO INGELESEKO LEXIKOA)

Unitatean ingelesez azaltzen diren hitzak lantzea: *monastery* (monasterioa), *evil* (gaizkia), *selfishness* (egoismoa), *miracle* (miraria), *painters* (pintoreak), *Jesus climbed the mountain and sat down with his disciples* (Jesus mendira igo eta han eseri zen ikasleekin). Horiei buruzko informazio gehiago izateko edo nola esaten diren jakiteko, sartu webgune honetan: <http://www.wordreference.com/es/>

Ikaslearen liburuko orrialde bakoitza nola landu. Egitura.

➡ **TREBETASUNAK**

➡ **IRADOKIZUN METODOLOGIKOAK**

➡ **ERANTZUNAK**

➡ **JARDUERAK**

▶ **Finkatzeko**

▶ **Zabaltzeko**

➡ **LANKIDETZAKO IKASKUNTZA**

➡ **OINARRIZKO GAITASUNEN GARAPENA**

5. unitatea. Jesusek barkamena dakar

TEBETASUNAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Trebetasunak

Barkamenak, adiskidetzak eta beste hainbat jarrerak bakean bizitzeko duten garrantzia ikastea.
Adiskidetzak sortzen dituen sentrazio onak eta ongizatea ikusteak.
San Frantzisko Asiskoaren bizitzari buruzko informazioa gogoratzea eta sakontzea.
Jesus besteei barkatzearen eredu gisa gogoratzea.
<i>Bekatuaren</i> eta dituen ondorioen esanahia ikastea.
Adiskidetzaren sakramentua zer den ikastea.
<i>Kanon</i> eta <i>Vulgata</i> Biblia hitzen esanahiak jakitea.
Barkamena eta adiskidetzak esan nahi duten keinuak ezagutzeko.
Bakeak pertsonentzako duen garrantzia lantzea, edozein dela ere haien kultura edo erlijioa.

Ebaluazio irizpideak

a Ea jabetzen den gatazka bat izan ondoren barkatzearen eta bakeak egitearen garrantziaz.
b Ea ezagutzen dituen gatazka bat konpontzeko sortzen dituen sentrazio onak.
c Ea baduen San Frantzisko Asiskoaren bizitzaren berri.
d Ea identifikatzen duen Jesus barkamenaren eredu gisa.
e Ea ezagutzen dituen bekatuaren ondorioak.
f Ea Adiskidetzaren sakramentua zer den badakien.
g Ea badakien Bibliako kanona eta <i>Vulgata</i> Biblia zer diren.
h Ea ezagutzen dituen barkamena edo bakeak egitea adierazten duten keinuak.
i Ea baloratzen duen gizarte batean bizitzeko bakeak duen garrantzia.

KONTZEPTUZKO EDUKIAK

- Jesusek Jainkoaren barkamena ekartzen digu.
- Bekatua.
- Jainkoaren barkamena eta errukia.
- Jainkoaren Salbamena Adiskidetzaren sakramentuaren bidez.
- Barkamenerako eta adiskidetzeko keinuak.
- Bake sinboloak.
- Bibliako kanona eta *Vulgata* Biblia.

➔ OINARRIZKO GAITASUNAK

Gaitasunak	Ebaluazio adierazleak	EI
Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna	Ea elkarrizketa erabiltzen duen besteekin bakeak egiteko.	a b i
	Ea otoitz batetik abiatuta ideia garrantzitsuei buruz hausnartzen duen.	c
	Ea istorio bat asmatzen badakien.	a b
	Ea ingelesez hitz berriak ikasten dituen. Ea ingelesezko esaldi bat irakurtzen duen.	
Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna.	Ea ezagutzen dituen gizarteak bakearen alde eginiko topaketak.	a i
	Ea ezagutzen dituen nazioarteko erakunde garrantzitsu batzuk.	i
Matematikarako gaitasuna	Ea data historiko garrantzitsuak ezagutzen dituen eta denboran kokatzen dituen.	c d h
	Ea ezagutzen dituen zenbaki erromatarrik.	c d
Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna	Ea Interneten landutako gai bati buruzko informazioa bilatzen badakien.	c d e f g
	Ea testu batetik ideiak eta ondorioak ateratzen dituen.	c d e f g
Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna	Ea besteekin bakeak egiteko barkamena eskatzen ikasten duen.	a b d f h
	Ea bakearen garrantzia baloratzen badakien.	a i
	Ea baloratzen duen gaizkiaren aurkako kristautasunaren mezua.	c d f
	Ea pertsonak egiten dituzten eguneroko keinuak interpretatzen badakien.	h
Giza eta arte kulturarako gaitasuna	Ea ikur bat interpretatzen badakien.	i
	Ea kristauen Adiskidetzaren esanahia ezagutzen duen.	b d f
Ikasten ikasteko gaitasuna	Ea barkamena gatazkak konpontzeko jarrera ontzat duen.	a b f i
Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna	Ea harremanetan bakeak egiteak duen garrantzia ikasten duen.	a b d f h i
	Ea baloratzen dituen bizikidetza bakean izateko jarrerak.	a i
	Ea baloratzen duen barkamenaren garrantzia.	d f

5. unitatea. Jesusek barkamena dakar

➔ METODOLOGIA

Unitate honetan Jesusen mezua landuko dugu; batez ere barkamenari buruz erakutsitakoa. Pertsonen esperientziatik abiatuko gara, bakeak egiteak edo gatazkak konpontzeak sortzen dituen sentimendu onak gogoratu. San Frantzisko Asiskoaren irudiak eta bakearen aldeko munduko topaketek ere lagunduko digute. Hori guztia abiapuntu hartuta, Adiskidetzearen sakramentua landuko dugu. Jarraitu orrialde bakoitzean proposatutako iradokizun metodologikoei.

➔ ANIZTASUNAREN TRATAERA

▶ Finkatzeko

- Idatzi koadernoan zerbaitegatik barkamena eskatu behar izan dugun une baten deskribapena.
